

Ihesi

PELLO LIZARRALDE

Argazkiak: Josu Santesteban

Euskal Herria ezagutzuz:
Urraul eta Lokiz (Nafarroa)



Bi izen mapa ahantzi batean

Nafarroako bi eskualde deskubritzeko gonbita egingo digu Pello Lizarraldek hurrengo lerroetan. Mapak ez ditu oraindik haien izenak ahantzi, bai guk, ordea, mapan izen horiek nola bilatu. “Zuk ezer ez baduzu haiek ere ezer eskaintzen ez dutelako maite ditut”, hitz ederrokin aurkeztu dizkigu egileak Urraul eta Lokiz, hauspoa ezin isilagoa duten bi birika.



Ezkerrean, Urraulgo San Fe elizaren inguruak. Eskuinean, Lokiz mendilerroa.



HAINBESTE DATU argitaratzen den honetan argigarria litzaizukeen hori falta zaizula ohartzen zara. Hutsala da seguru aski, baina lagundu egingo lidake. Nik, konparazio batera, jakin nahi nuke Iruñeko bizilagunen arteko zenbat diren herrialdeko beste leku batzuetan jaiokak.

Zifra hori izan gabe ere, ausartuko nintzateke esatera askotxo direla. Bisitariaren edo etorri berriaren aurrean abegikor agertu nahi dutenean iruindar askoren artean ohikoa da oraindik zera

entzutea: “Ea aurten gure herriko jaietara etortzen haizen...!”.

Horrela entzun ohi dut ia beti. Izena aipatu gabe. *Herria* letra larritan, derrigorrean ezagutu behar bazenu bezala. Gero paradoxa. Hasi nafar askori herrialdeko beste toki batzuek galdezka, eskatu esateko nontsu dauden, nola ingura zaitezkeen eta askotan... jai duzu. “Nire eskualdekoak bai, gainerakoan...”.

Horretan, hala ere, nonahi ere berdintsu. Lehendik sinetsarazi diguten konbinazio bat dugu ira-

gaitzaz dabilen kanpotarrari eskaintzeko. Nafarroan gehienok bat gatoz abiapuntuan: hiriburu bisitariari aski zaio egun bakarra. Ondoren izen segida ale-tzeak dakar argazki osatzea: Pirinioak, Bertiz, Baztan, Ultzama, Arbaiun, Eunate, Lizarra, Urbasa –beti ere astebururako–, Erriberri... Gaineratu beste pare bat. Bertan jatetxe ona bada, hobeki. Eta Historia, Historia Handia, errege-erreginen izenez betea. Errege-erreginen izenak erakunde ofizialei eta alternatiboei, hote-



Ugarrongo arroila, Ekialdeko Urraulen.

lei, futbol zelaia... Herri konplexudunen kartoi bustiko maskara, makillaje urtzen hasia...

Nora jo aurreko guztiak alde batera utziz gero? Noranahi. Lurren zabala dugu. Urteak eman genitzake ibilian, nahi izanez gero. Nafarroa erdi hustua begitantzen zait, eta datu batzuk aski lirateke irudipen hori berresteko. Huts hori, ordea, paradisu madarikatuetako hutsa da, industrializazioak eta emigratzeak ekarri zuten infernutik etorria. Hor dituzte poeta erromantikoak beti bilatu izan dituen irudiak: sastraka eta horma eroriak, landa utziak, bidezidor itxiak...

Ezagutza, etortzekotan, lurra berriz zapaltzetik eta ukizetik etorriko da. Txikitik, bizipen txikitik, izen apaletik. Ilun-argitako bidaia horretan lagungarriak zaizkigu beti bigarren eta hirugarren mailako errepidea, mapa xehea, ibili zale izatea...

Gaurkoan bi eskualde aipatuko ditut. Zuk ezer ez baduzu haiek ere ezer eskaintzen ez dutelako maite ditut. Ia erabat aske dira oraingoz hiru buruko kalamitatetik: landetxea-arrisku kirola-gastronomia. Hori gabe zer dagoen galde lezake abiatzeko prestatu denak. "Zer ez dago han...!", erantzungo nioke

horrelako gomendioak emateko tenorean suhertasuna baretzen ikasi ez banu.

Urraulgoiti

Urrun dago oso eta ez naiz kilometrotan neurtzen ari. Abiatzen denak aurrez ongi taxutu beharko du ibilbidea. Hiriburutik ateraz gero lau bat bide aldatze egin beharko bigarren mailako errepideetan sartu eta gero. Bide nagusiak urrun xamar orain eta beti.

Bi besoko haran honetan barneratzea ixiltasun gero eta latzago bateko tunelean aurrera egitea da. 65 urtetik gorako 160 bizilagunen



HOTELA **IRIARTE JAUREGIA** *****

Bidania (Bidegoian) Gipuzkoa • Tel.: 943681234
www.iriartejauregia.com



Lokiz mendilerroko irudiak. Bi haran daude Lokizpean, eta biek sarrera liluragarriak dituzte.

isiltasun batuak astuna behar du derrigorrean.

Bi besoen elkargunea Imirizaldun dago eta zubi batean abiapuntua. Iparrera jo aurretik merezi du sartualdi bat egitea Ekialdeko Urraulen. Zubitik Areta ibaiaren ezkerreko bazterrera jo eta galso-roak zeharkatuta, Ugarrongo arroila xarmantera iritsi gaitezke ordu laurden baten buruan. Arroilako ezkerreko paretara hurbiltzen gaituen bidezidorretik begietsiko dugu zintzurra eta beste aldeko oihan trinkoa. Udan uretara jaitsi eta han murgiltzea lortzen duenak ez du ahantziko zer eman dezaketen urak, eguzkiak eta itzalak, nahasten direnean. Oteak, ezpelak eta zuhaixkek ez dute lortu Berroia ia husturaino daraman bide tupa-rriz betea itotzea. Hortik Arieltzera eta handik eskuin arroilaren beste aldera igo behar da, Ugarrongo bordaraino; berriz Areta ibairaino jaitsi gaitezke eta ibi zabala gurutzatuta lau bat ordutan lortuko dugu zirkulua ixtea.

Ezkerrekoa da haraneko besorik luzeena eta Elkoatzeraino eta hortik Aristuraino iristen da. Edozein gida-liburuk gunek bakarra nabarmentzen du: Eparotzeko Santa Fe eliza eta bertako garaia. Oraindik

orain iruzur zantzuak izan dira gune horretan egindako ostatu bat dela medio. Gure agintariak ez zebiltzan urrun.

Ez da horrelakorik erreka zeharkatu eta mendian gora joz gero topatzen duzun Aizkurgin. Orain dela urte batzuk gehienbat Madriletik etorritako gazte abegikor batzuk jarri ziren han eta sastraka kenduta argia ekarri zuten berriz horma erorien artera. Handik hurbil dago bizilagun bakarreko Ezkanitz, teilatu gabeko eliza ere oihan bihurturik.

Eparotzetik aurrera hurrena Ongotz; handik Aietxu, Elkoatz eta Aristura. Hor eteten da erre-pidea, mendi magalean, hegal eder eta luzeen oinean; eta han hasten lehenik bideak eta gero bidezidorrak, betiko mendizaleentzat hain maiteak diren Erremendia, Aldasur, Motxorro edo Baigurara daramatenak.

Adoaingo predikari euskalduna

Eskuineko besoa ere bada mendirik. Adoain duzu buruan. Aspaldi handia izan omen zen hura bil-bil eginda ageri da egun, bakardadeari eta hotzari aurre egiteko elkartzen diren ardiak antzera. Euskaltzale batzuek gogoko dute orain dela bizpahiru urte herri horretan agin-

tariak eta Euskaltzaindiak jarritako monolitoa aipatzea. Euskara zen Adoaingo Esteban kaputxinoaren ama-hizkuntza; predikari izanik prediku batzuk argitaratu zituen XIX. mendean; bere hitz bero eta integristari esker kristautu omen zituen ingurukoak eta gero Ameriketako jentil asko eta asko.

Adoain bakartuak baditu are bakartuagoak hurbil xamar, inguruko oihanetan, betiereko loan: Cerrencano, Goitikoa eta Beitikoa. Haiek iristeko Adoaingo ibar txikian barrena doan bidezidorra hartu behar da lehenik eta Olargatu (Olargato) mendiraino daraman basapista gero. Olargatuko haitzari amildegia begiesteko egindako itsasontziaren itxura hartzen diot. Ordutan egon zaitezke, begiratua alde guztietara egina. Gailurretik Cerrencanora jaisteko bidea ez da xamurra, garai batekoa sastrakak ito baitu eta oso erne ibili behar da. Bertan egon arte ez duzu herri aspaldi hustuaren aztarnarik aurkituko. Bat-batean, antzinako tenpluak nola Asiako junglan, zuhaixken gainetik nabarmentzen diren horma erorien hondakin bakanei esker jakingo duzu heldua zarela bizitoki izan zen hartara. Handik urrundu ahala zail egiten da atzera behin eta berriz

begiratzeko beharrari eustea agerpena berresteko edo.

Berriki Urraulgo alkateak Nafarroako agintariekin elkartu dira. Zaharrentzat zaintzaileak behar dituztela esan diete, eta errepidea zabaltzea, eta telefono estaldura hobetzea eta ur hornidura bermatzea... Baietz, baina dena ezin dela batera eman. 160 bizilagun Urraulgoitin, ia halako bi Beitikoan. Erraza zuten kontuak ateratzea.

Lokiz

Goitik balkoi eta amildegi, behetik itxura batean harresi luze eta igaroezin, Lokiz mendia bera ez da Lokizen ederraz eta neurriaz jabetzeko leku hoberena. Handitasun horretaz gozatzeko garaiera bertuko Etxabarriko haitz ikusgarri-tara igo gintezke. Handik ongi begizta daitezke iparraldeko muturra eta San Kosmeko aldea.

Bi haran daude Lokizpean eta biek sarrera liluragarriak dituzte. Allin haranekoa irekia da eta lau bat kilometrotan zehar, haranaren erabateko ikuspegia galdu gabe, errepide zuzen xamar batek hurbiltzen zaitu imanak bezala erakartzen duen harkaitz aldera eta haren oinean dauden Ganuza, Ollobarren eta Ollogoienera; besteak, Lana haranekoak, atari bat du, bizpahiru kilometroko korridorea. Tarte horretan Galbarra ibaiaren bazterretik doan errepideak mendia ezkututzen du. Galbarra herria jotzean Lokizeko pareten zirkulu ia erabat itxiak besarkatzen ditu Galbarra, Biloría, Gastiain, Narkue eta Ulibarri. Bidaariak ere ezin dio itzuri egin besarkadari, beroa baita,

baina aldi berean arnasa hartzen uzten du eta, begiratua harritik kendu ezinik, behetik beti igaroezina dirudien labarrera igotzeko bulkadak betetzen dio bularra.

Igarobideak egon betidanik daude eta Ameskoarekin lotzen du eskualdea; mandabide izan ziren, baina orga batentzako tokia ere bada mendateetan. Behetik gora goazela konturatuko gara zer lan hartu zituen garai bateko jendeak bertako harria eta lurra pilatzen eta zein ongi irauan duten ia bere har-

Gero, guk bizkarra emandakoan, bi izen horiek eta beste asko ilunpera itzultzen dira ezarian

tan. Bide horiek ez dira inoiz errepide bihurtu bakardade bera arnasten baitute bi eskualdeek eta herri bizien mundura ekartzeko ez da aski ikazkin baten bizitza kontartzten duen filmaren kreditu zerrenda bukaeran agertzea.

Lana haraneko bide argiena Narkuen hasten da eta Irasabelara eta Larrainetara igotzen da. Hortik Otsogaineraino, sastrakarekin borrokan, bidezidor gero eta galduagoen arrastoen usnan, ertzetik ahalik eta hurbilen. Handik harana ia osorik jaso dezakete begiek eta Lokizen hegoaldeko muturra sumatzen da. Itzulera ahaztezina izango zaigu jaisteko tenorean Arnabako arroila hautatuz gero.

Allinetik ere bi sarbide daude eta haiek ere aise lotu litezke. Goian bi baseliza; Galdeanotik abiatuta San Kosme, Ollobarrenetik edo Ganu-

zatic Santiago, eta bien artean Sar-tzaletako gaina, inguruko behatoki-rik egokiena. Amildegiaeren buruan harri xehea eta beheago baso sarria, are beheago landak eta tarteka, bakan, hariztiak eta herriak.

Lokiz aldeko karriketean ez da erraza bizilagunen bat topatzea. Hitz gutxiko jendearrekin suertatu naiz gehienetan, baina galdetuz gero ez dira uzkur agertzen. Ikusten duzuna ikusgarriago bihurtzen du euskaratik ere baduen haien gaztelania ederrak, eta oso maiz Pablo Antoñanaren liburuen oihartzunak ekartzen ditu. Haiek isildutakoan min sorra gelditzen zaizu. Laster hiztegiek eta unibertsitateko irakasleek erreparatuko diete doinu horri eta mundua izendatzeko molde horiei, eta haien ondoan parentesari arteko laburdura batek adieraziko digu zer diren: (zah.).

Tinta marguleko bi izen

Iaz agertu zen datua: munduan lehenengo aldiz bizilagun gehiago daude hirietan herrietan baino. Aurreko lerroetan bi ibilbideren hezurdura hauskorra besterik ez dago. Ahanzturak, beste asko bezala, tinta marguleko bi izen izatera kondenatu ditu Urraul eta Lokiz. Heriotza, hain hedatuta dagoen erromantizismotik etor dakiok. Susmoa dut, ordea, gure bisitaldi laburrek ere saihestezina dirudien hori atzeratzea baino ez dutela lortuko. Gure hatzak mapa kurritu eta izenaren ondoan geldituzean, izen horiek argialdi labur bat bizi izaten dute. Gero, guk bizkarra emandakoan, hatza baztertutakoan, bi izen horiek eta beste asko ilunpera itzultzen dira ezarian. ■

Txomin Etxaniz
TXAKOLINDEGIA



txakoli@txominetxaniz.com • Tel.: 943 14 07 02 • Getaria

ellaURI
HOTELA



Altzusta 38, 48144 ZEANURI
+34 946 317 888 | ellaURI.com

Natura sentitu